



BALIOZKO PROPOSAMENA

JU&MI enpresa Urnietan kokatuta dagoen arropa denda bat da. Lau bazkidez osatuta dago. Gure arropa denda zenbait gauz desberdinetan espezializatzen da, adibidez, kontsumitzaileen gorputzera moldatuta dagoen arropa eskaintzen dugu, hau da, bezeroen beharrak eta gustuak kontuan hartuta arropa diseinatzen dugu.

Gure helburua, kontsumitzaileen beharrak asetzea da eta haiek benetan ondo geratzen zaien arropa aurkitzea. Bezezeroekin lotura estua izatea eta esperientzia atsegina eta pertsonalizatua eskaintzea oso garrantzitsua da. Moda arloan sormena eta berrikuntza sustatzea da proiektuaren helburua.

Beste enpresa guztiak bezala konpetentzia desberdinak dauzkagu. JU&MI enpresaren konpetentzia nagusia merkataritza-guneko eta zenbait hirietan kokatuta dauden denda famatuak dira, hala nola, Primark, Bershka, Zara, Pull&Bear, etab. Haiek “Fast Fashion” mugimenduaren parte direlako, gainera arropa nahiko merke saltzen dute, nahiz eta kalitate ez hain ona izan.

Gure enpresak besteengan desberdintzeko zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

Merkatuan ez dauden hainbat talla sortu ditugu (35, 37, 39...) eta arropa pertsonalizatu daiteke (Koloreak, diseinuak, tallak...). Arropa, kalitatezko telarekin sortua izango da, ingurumena babesteko. Horrez gain, zure gorputzera moldatzen zaizun arropa aurkitzeko zailtasunak badituzu, gure dendan kolorimetria sesioak eskaintzen dituen langile bat egongo da. Aurpegiaren fakzio, tonu eta gorputzaren arabera, kolore eta mota zehatz bateko arropa aholkatuko zaizu.

Talla bereziren bat behar duen bezerorik badago, beste langile batek neurriak hartuko dizkio bezeroari. Beraz, zure gorputzera hobeto moldatuko den arropa zein den jakingo duzu eta hura gure dendan erosteko aukera ere izango duzu. Hala den, arroparen bat saldu gabe geratzen bada, bigarren eskuko dendetara bidaliko ditugu.

Baina gure dendan, arropa eskaintzeaz gain, kafetegi postu bat dago, bezeroekin datozenak itxaroten duten bitartean gustura egoteko zerbait jaten edo edaten. Horrez gain, umeentzako egongela bat daukagu. Horrela, bezeroak haien seme-alabekin etorritz gero, lasai egon daitezke erosketak egiten, seme-alabak jolas-gelan egon daitezkelako jolasten.

Gure dendan erabiltzen dugun argia, energia ahalik eta berriztagarriena izango da. Horretarako, eguzki plakak erabiliko ditugu.

Hurrengo garapen iraunkorreko helburu hauek betez, JU&MI enpresak ingurumenaren eta gizartearen onura bilatuko du, etorkizun jasangarriago bat sortzeko.

Hauek dira gure enpresak betetzen dituen helburuak:



- Pobrezian dauden pertsoneri laguntzeko, temporadaz pasa edo saldu ez den arropa bigarren eskuko dendetara bidaliko dugu, beharra duten pertsonak arropa prezio merkeago batean eros ahal izateko.



- Enpresak energia eskuragarri eta ez kutsatzailea erabiltzen du. Hau da, gure enpresak eguzki plakak erabiltzen ditu energia modu ez kutsagarri batean lortzeko,



- Gure arropa dendan dauden langileen lan-baldintzak osasuntsuak eta seguruak bermatzea da helburua, lan-ingurune egokia sortzeko. Horrek, langileen ongizatea eta produktibitatea hobetzeaz gain, bezeroen zerbitzua hobetzen du.



- Emakumeen lanpostuak sustatu eta langileen artean genero-berdintasunaren aldeko politikak ezartzea.

Helburu gehiago betetzen saiatzeko, bezeroei eta komunitateari honen garrantziaz kontzientzia sor dezakegu (Arropak bigarren eskuko dendetara bidaltzea, “Fast Fashion” mugimendua ez sustatzen...), produktuekin eta zerbitzuekin lotutako ingurumen eta gizarte ardurak nabarmenduz. Baita ere, ekoizpen prozesuak hobetzeko teknologia berritzaileak ezartzea eta kalitate oneko materiala erabiltzea. Horrela, ingurumena zaintzearen konpromezua hartzen dugu.